

## **Lehenengoa. Izena: Foru parlamentariak**

- a) Oinarri juridikoa: DBEOren 6.1.e) artikulua: Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen jardunean burututako eginkizun bat betetzeko.  
Mahaiak 2011ko irailaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsitako Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 1. artikulua. (NPAO, 10. zk., 2011ko irailaren 15ekoa).
- b) Tratamenduaren xedeak: Foru parlamentarien datu pertsonalen aitortpena, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 1. artikulua betez. Datu horiekin egiten dira deialdiak eta bestelako jakinarazpen ofizialak edo gonbidapenei buruzkoak eta bertaratze-zerrendak; halaber, erabiltzen dira Ganberako organoen osakeraren berri emateko, Nafarroako Parlamentuaren webgunerako, Parlamentuko agendarako eta jardueren memoriarako. Ordainsariak zein banku-kontutan sartuko diren adierazteko ere erabiltzen da.
- c) Ukitutako pertsonak eta kolektiboak: Parlamentariak.
- d) Datu-kategoriak: Izen-abizenak, jaioteguna, jaioterria eta jaiotze data, probintzia, egoera zibila, seme-alaben kopurua, lanbidea, identifikazio fiskaleko zenbakia, gizarte-segurantzako afiliazio-zenbakia, ohiko helbidea eta telefonoa, jakinarazpen ofizialetarako helbidea eta telefonoa, ordainketetarako kontu-zenbakia eta banku-erakundea, data, sinadura eta argazkia.
- e) Hartzaile-kategoriak Aurreikusitako helburua betetzeko ezinbestekoak diren transferentziak (bidaia-agentzietara, bisitatzen diren erakundeetara, Nafarroako Gobernuaren eta beste erakunde batzuen komunikazioetarako harremanak erraztea parlamentariei, etab.).
- f) Nazioarteko transferentzia: Ez dago halakorik aurreikusita.
- g) Bertan behera uzteko epea: Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoari jarraituz. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.
- h) Entitate arduraduna: Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlamentuari norbere datuen eskurapena, zuzenketa, ezabaketa, eramangarritasuna, haien tratamenduaren murriztapena eta tratamendu horri aurka egitea eskatzeko eskubidea baliatu nahi izanez gero, bidezkoa denean, hori idatziz egin behar da, helbide honetara joz: Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña. Bestela, posta elektronikoko honako helbide honetara: [dpd@parlamentodenavarra.es](mailto:dpd@parlamentodenavarra.es).